

## FORU DEKRETUA

## DECRETO FORAL

19/2002 FORU DEKRETUA, martxoaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako ETEen lehiakortasuna hobetzeko laguntzen programa (PROMECO) onartzen da 2002ko ekitaldirako.

Ekonomia globalizatu honetan, Arabako enpresek erronka bat dute, etengabeko egokitze prozesu bati ekin behar diotela, alegia. Mundu osoan inguru lehiakor berri bat konfiguratzeko ari da eta informatikako teknologiek berebiziko garapena izan dute, eta konfigurazio eta garapen horrek eragin du, batez ere, aldaketa hori. Horregatik, Arabako enpresek aldaketa horiek egin beharko dituzte, lehiakortasun maila areagotu eta gero eta inguru konplexuago, zabalago eta dinamiko batean bizirik iraun nahi badute.

Arabako Foru Aldundiak badaki zer garrantzia duten aldaketa horiek eta nolako ahalegina egin behar duten enpresek aldaketa horietara egokitzeko, eta horregatik Enpresa Ertain eta Txikien lehiakortasuna sustatzeko ekintzekin jarraitu nahi du, eta honako proiektuei lehentasuna eta laguntza eman die: informazioaren teknologiak sartzeari eta ezartzeari, ezagutzaren gizarteari, telekomunikazioei, nazioarteko bihurtzeari, berrikuntzari, enpresen arteko lankidetzari, elkartasun estrategikoei eta ingurumen kalitateari.

Aurreko irizpenak kontuan hartuta, eta Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailek aurrera daramaten ekintzen osagarri, foru dekretu berri baten bidez Laguntzen Programa arautu da, Arabako Enpresa Ertain eta Txikien lehiakortasuna hobetzeko (PROMECO-2002). Enpresa Ertain eta Txiki guztiei publikitate, lehiakortasuna eta objektibotasuna printzipioak bermatuko zaizkie programa horretako laguntzak jasotzerakoan, bai eta ahalik eta enpresa gehienek parte hartzea ere.

Horregatik guztiaengatik, Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatuta,

### XEDATU DUT:

2002ko ekitaldirako aurrekontuaren barruan, Arabako Enpresa Txiki eta Ertainen (ETE) lehiakortasuna hobetzeko laguntzen programa (PROMECO) onartzea, ondoko oinarriak kontuan izanda:

#### 1. artikulua.- Helburua.

Dekretu honen helburua da Arabako enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko jarduerak sustatzea eta horretarako behar den laguntza markoa ezartzea.

#### 2. artikulua.- Onuradunak.

##### 2.1. Honako hauek jaso ditzakete dekretu honetako onurak:

a) sozietate eta zerga helbidea Araban duen enpresa ertain eta txiki orok, bere konfigurazio juridikoa edozein dela ere, baldin eta produkzio edo zerbitzu zentroetako bat gutxienez Araban badu eta enpresa eratu zenetik eskabidea egin arte, gutxienez urtebete igaro bada.

b) nortasun juridiko propioa duten enpresa taldeek eta elkarteek.

c) Zerga egoitza Araban duten autonomoek.

2.2. Dekretu honen ondorioetarako, enpresa ertain eta txikitzat hartuko dira eskabidea aurkezterakoan honako baldintzak betetzen dituztenak:

- 250 soldatuko langile baino gutxiago izatea.

- eta honako hauek aurkeztea:

- 40 milioi euro (6.655 milioi pezeta) baino gehiagokoa ez den urteko negozio bolumena,.

- edo 27 milioi euro (4.492 milioi pezeta) baino gehiagokoa ez den urteko balantzea.

2.3. Aurreko puntuetan adierazitako enpresek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte, 18/97 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai ebazpenaren unean, bai dirulaguntzak jasotzeko unean.

2.4. Industria alorreko enpresak eta industriari lotutako zerbitzuak hartuzko dira enpresa onuraduntzat. Ez dute izaera hori izango sozietate publikoek ez eta zuzenbide publikoko erakundeek ere.

3. artikulua.- - Laguntza jaso dezaketen jarduerak eta gastuak.

3.1. Honako hauek jaso dezakete laguntza kontratatutako lanengatik: kanpoko profesionalek, teknologi zentroek edo zerbitzu profesionalen enpresek, betiere enpresaren ustez lan horiek jarduera probetxugarrietan erabiltzen badira eta enpresarentzat lehiakortasun arloan abantaila bereziak ekartzen baditu.

3.2. Ondorengo proiektu hauek lehentasuna izango dute:

- Informazioaren teknologietara sarbidea izatea eta teknologia horiek ezarrita izatea.
- Ezagutzaren gizarteak.
- Telekomunikazioek.
- Nazioarteko bihurtzeak.
- Berrikuntzak.
- Enpresen arteko lankidetzak.
- Elkartasun estrategikoak.
- Ingurumen kalitateak.

3.3. Era berean, eta garrantzi berezia duten proiektuei dagokionez, barne sailetan egindako lanak ere diruz lagun daitezke, betiere proiektuak berariaz bereizirik badaude, eta behar bezala egiaztaturik bai sortze aldetik bai gauzatze aldetik, eta enpresak ez badu diru laguntzarik jaso aurreko PROMECO ekitaldietan antzeko beste proiektu batzuentzat.

3.4. Oro har, ez dira diruz lagunduko enpresak proiektuak gauzatzean egindako material eta langileria gastuak, aurreko paragrafoan aipatzen diren proiektuetako langileria gastuak, aktibo material finkoetan egindako inbertsioak eta prototipoen fabrikazioa izan ezik.

3.5. Beste gastu hauek ere ez dira diruz lagunduko: publizitate, katalogo azoketara joateagatiko eta homologazio gastuak. Salbuetsita daude nazioarteko bihurtzeko edo enpresen arteko lankidetzak gastuak, arkitekturako eta industri ingeniariartzako proiektuei dagozkien gastuak eta balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ).

3.6. Bestalde, kanpoko profesionalek edo enpresa eskatzaileari akzioen bidez lotuta dauden aholkularitzek egindako lanak ez dira diru laguntzat hartuko.

3.7. Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak ez du diruz lagunduko hainbat aurrekontu partida, nahiz eta proiektuarekin zerikusia izan, baldin eta uste badu partida horiek ez dutela enpresaren lehiakortasuna behar adina hobetu.

4. artikulua.- - Aplikazio eremua eta proiektuak gauzatzeko epea.

4.1. Enpresa onuradunek Araban gauzatu beharko dituzte euren azterketen edo proiektuen (diru laguntza eskatzeko azterketa edo proiektuak) ondorioak.

4.2. Honako hauek jaso ahal izango dituzte laguntzak:

- 2002an hasitako proiektuetatik, 2003ko ekaina arte egiten diren jarduerak.
- Lehenago hasitako proiektuetatik, 2002ko ekitaldian ordainduko diren jarduerak eta 2003ko ekaina arte egingo direnak.

5. - Diru laguntzen zenbatekoak eta horien mugak.

5.1. Oro har, dekretu honetan jasotako diru laguntzak ez itzultzekoak diren diru laguntzen bidez gauzatuko dira. Diruz laguntza % 30 bitarterainokoa izan daiteke, baina gehienez 33.000 euro enpresa bakoitzeko.

5.2. Osagarri moduan, diru laguntza % 15 gehiago gehitu ahal da, gehienez, baldin eta diruz lagundutako proiektuak enplegu sorkuntza garbia badakar. Horrelakoetan, proiektuari lotutako enplegu sorkuntza berrien kopurua eta haien ezaugarriak hartuko dira kontuan.

6. artikulua.- Hautatzeko irizpideak eta proiektuen balorazioa.

6.1. Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak honako irizpide hauen arabera hautatuko ditu lagundu beharreko proiektuak:

- Aurkeztutako proiektuen izaera, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Aurkeztutako proiektuaren definizio, kalitate, edukiera eta aurkezpen maila.
- Emaizten eragina eta proiektuaren ekarpena enpresaren hobekuntzan lehiakortasunari dagokionez.
- Programa honetako edo Ekonomia Zuzendaritzak sustatutako beste laguntza programetako beste ekitaldi batzuetan enpresak aurkeztutako proiektuen gauzatze maila.
- Programan adierazitako baldintzen betearazpen maila.

- Enpresaren egitura eta tamaina.

6.2. Era berean, positibotzat joko da proiektua edo lana Araban edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren profesionalek, teknologi zentroek edo zerbitzu profesionalen enpresek kontratatzea.

6.3. Beste hau ere positibotzat joko da, aurkeztutako proiektuak gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna printzipioa errespetatzea, alegia.

6.4. Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak eskaintza hirukoitza aurkezteko eska diezaieke enpresei egin beharreko proiektuak gauzatzeko, kanpoan kontratatutako lanak direnean. Edozelan ere, Zerbitzuak berak eskaintza osagarriak eska ditzake enpresak aurkeztutako aurrekontuak alderatzeko asmoz.

6.5. Aurkeztutako eskabideen artean zein aukeratu eta diru laguntzak zenbatekoak izango diren, aurrekontuetan dauden partiden arabera erabakiko da.

6.6. Era berean, ukatu ahalko dira enpresen eskariak, baldin eta aurreko ekitaldietan enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko laguntza programetan diru laguntza jaso eta bere garaian diruz lagundutako proiekturik gauzatu ez badute.

#### 7. artikulua.- Inprimaki ereduak eta eskabideak aurkeztea.

7.1. Laguntzak jasotzeko eskabideak Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Saileko Ekonomia Zuzendaritzak horretarako berariaz diseinatutako inprimaki ereduetan aurkeztu beharko dira han eskatutako dokumentu osagarriekin batera. Eredu horiek dekretu honen eranskinean daude.

7.2. Eredu horiek eskura daude Arabako Foru Aldundiko Ekonomia, Sustapen eta Enplegu Zerbitzuan. Zerbitzu hori Gasteizko Probintzia plazan dago (4 zenbakia, 3. solairua. 01001 posta kodea).

7.3. Dekretu honetan arautzen diren laguntzak eskuratu ahal izateko eskaerek gutxienez agiri hauek izan behar dituzte:

- Dekretu honen eranskin gisa dauden eskaera inprimakiak, oso-osorik beteta.
- Erantsi beharreko dokumentazio gehigarritik, kanpoko profesionala tartean badago, honen eskaintza; barneko lana bada, memoria teknikoa.

Hasiera-hasieratik eskatzen den gutxienerako dokumentazioa aurkezten ez bada, era automatikoan ezezkoa emango zaio eskaerari.

Aurkeztutako eskabideak ez badira inprimakietan eskatutako dokumentuekin aurkeztu (nola eta horiek ez diren aurreko 7.3 artikuluan gutxienerakotzat jotakoak) edo emandako informazioa nahikoa ez dela uste bada, dagokion dokumentazioa 10 laneguneko epean igortzea eskatuko zaio interesdunari. Era berean, eta eskatzaileak ez badu dokumentazioa jarritako epean igortzen, haren eskabidea bazterturik geldituko da, eta aurkeztutako proiektua besterik gabe artxibatuko da.

7.4. Eskabide bat behar bezala beteta dagoela ulertuko da, baldin eta eskabide inprimakietan eskatutako dokumentazio guztia jasotzen bada eta Ekonomia, Sustapen eta Enplegu Zerbitzuaren ustez proiektuari buruzko informazioa nahikoa dela uste bada, proiektua aztertu eta proposamen teknikoa prestatu ahal izateko.

7.5. Era berean, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak beharrezkotzat jotako edozein argibide eska diezaioke enpresa eskatzaileari, eskabidean adierazitako datuak eta aurkeztutako proiektuen gaineko informazio osagarria egiaztatu ahal izateko.

#### 8. artikulua.- Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.

8.1. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuan (Ekonomia Zuzendaritza).

8.2. Eskabideak aurkezteko epea xedapen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzean hasiko da eta 2001eko maiatzaren 10ean amaituko.

9. artikulua.- Eskabideak onartzea.

9.1. Ekonomia Zuzendaritzak diru laguntza zein proiektuari eta zenbateko diru laguntza eman behar zaion proposatu behar dio Saileko foru diputatuari arrazoizko proposamen baten bidez, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak txosten teknikoa prestatu ondoren.

9.2. Diru laguntzak administrazio ebazpen bidez emango dira, eta bertan bete beharreko baldintzak adierazi beharko dira. Ebazpenak gutun ziurtatu bidez jakinaraziko zaizkie interesdunei eta hartu izanaren agiriarekin.

9.3. Oro har, eskabideari ezezkoa eman zaiola ulertuko da, baldin eta 1/1999 Foru Dekretu Arautzaileak (administrazio isiltasunari dagokionez, foru araua urtarrilaren 3ko 4/1999 Legera egokitzen duena), 14. idatz zatian ebazpena emateko eta jakinarazteko ezarritako gehieneko 6 hilabeteko epea igaro, eta berariazko ebazpenik eman ez bada.

9.4. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko maila bereko Salan bi hilabeteko epean, jakinarazpena gauzatzen den egunetik aurrera.

10. artikulua.- Diru laguntzen ordainketa.

10.1. Diru laguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agindu bezala gauzatuko da, bertan zehazten diren baldintzak bete ondoren.

10.2. 2002an amaitutako proiektuei dagokienez eta, oro har, diru laguntza ordaintzeko betebeharra errekonozitzeko, egindako lanaren txostena aurkeztu beharko da, eta ordainagiriaren fotokopiak erantsi dokumentazio osagarri moduan. Agiri horiek aurkezteko azken eguna 2003ko urtarrilaren 3a izango da. Diru laguntzak kobratu ahal izateko, 2003ko urriaren 15a baino lehenagoko ordainagiri guztien ordaindu ordaindu direlako egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

10.3. 2003an amaituko diren proiektuei dagokienez eta, oro har, diru laguntza ordaintzeko, egindako lanaren txostena aurkeztu beharko da, eta ordainagiriaren fotokopiak eta ordaindu direlako egiaztagiria erantsi dokumentazio osagarri moduan. Agiri horiek aurkezteko azken eguna 2003ko urtarrilaren 15a izango da.

10.4. Lana barne sail batean egiten bada, enpresako gerentziaren idazki bat erantsi beharko zaio egindako lan txostenari. Idazki horretan, enpresak honako puntuak egiaztatu behar ditu: dedikazioa, titulazioa eta langileriaren kostuak eta, hala badagokio, proiektuari atxikitako materiala. Egiaztagiri horri TC1 eta TC2-en fotokopiak erantsiko zaizkio bai eta enpresaren "lan parteak" ere, horiek izanez gero.

10.5. Lehen aipatutako epea amaitu eta ez bada diru laguntza jasotzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu edo dokumentazio hori nahikoa ez bada, diru laguntza bertan behera utzi ahal da arrazoi horrengatik.

10.6. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, eta Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzura igorri.

10.7. Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak egokitzen jotzen dituen dokumentu egiaztagarri osagarriak aurkeztea eska dezake.

11. artikulua.- Baldintzak aldatu edo ez betetzea.

11.1. Diru laguntzak jasotzeko ezarritako baldintzak aldatzen badira edo diruz lagundutako proiektua amaitzen ez bada edo egindako gastua hasieran uste baino txikiagoa izan bada, berehala jakinarazi behar zaio idatziz (gutuna, faxa, posta elektronikoa, eta abar) Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuari, eta honek emandako diru laguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea eska dezake.

11.2. Aurreko paragrafoan adierazitako egoera horiek ez badira jakinarazten, diru laguntza galtzeko arrazoia izan daiteke baldin eta Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak jakinarazi egin behar dela uste badu.

11.3. Baldin onuradunek ez badute foru dekretu honetan araututako baldintzaren bat betetzen, diru laguntza baliogabetu egin daiteke eta, diru laguntza dagoeneko ordainduta badago, enpresak nahitaez diru laguntza hori itzuli egin beharko du, indarrean dagoen legearekin bat, Foru Aldundiak zehaztutako eran.

11.4. Arabako Foru Aldundiak dagozkion legezko ekintzak gauzatu ahal ditu, baldin eta diru laguntzak jaso dituztenek dekretu honetan agindutakoa eta dagokion ebazpena betetzen ez badute, betiere Arabako Lurralde Historikoaren Diru laguntzen eta Eskualdatzeen 3/97 Foru Arauan ezarritako arau hauste eta zigor erregimenarekin bat.

12. artikulua.- Bateraiezintasunak.

12.1. Dekretu honetan araututako laguntzek «minimis» laguntzei buruzko 2001eko urtarilaren 12ko Europar Batasuneko 69/2001 zenbakiko (EE) Erregelamenduan ezarritako «minimis» arauak edo Europar Batasunean emandako arteztarauak edo xedapenak bete beharko dituzte.

12.2. Dekretu honetan araututako laguntzetara biltzen diren enpresen gastu proiektuek ezingo dute bestelako laguntzarik jaso, edozein dela ere laguntza horien izaera eta laguntzak ematen dituen organoa edo administrazioa, baldin eta laguntza horiek dekretu honen ondorioz emandakoei erantsita Europar Batasuneko arauetan minimis laguntzei buruz xedatutako laguntza mugak gainditzen badituzte. Edonola ere, gastu proiektu horiek ezingo dute inolaz ere dekretu honetako 5.1. artikuluan araututako gehieneko muga gainditu.

12.3. Diru laguntzen eskabidea egin ondoren beste laguntzaren bat lortzen bada, berehala jakinaraziko zaio idatziz Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuari eta horrek emandako diru laguntzen zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposatu ahal izango du.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehenengoa.- Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Sailak egokitzen jotako ekintzak gauzatu ahal ditu emandako diru laguntzen eta foru dekretu honetako beste baldintzen benetako aplikazioa egiaztatzeko. Horrenbestez, dirulaguntzaren onuraduna behartuta egongo da eskatzen diren agiri guztiak erakustera eta emandako laguntza zuzen erabiltzen dela bermatzeko frogaketak ematera.

Bigarrena.- Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Saileko foru diputatuari honako Foru Dekretua interpretatzeko eskumena ematen zaio, bai eta, era berean, ebazpen bidez egoki ezartzeko xedapen guztiak garatzekoa ere.

Hirugarrena.- Onuraduna Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Epaitegiak edo beste edozein organo eskudunak eskatzen dioten edozein informazio ematera behartuta dago.

Laugarrena.- Aurreko ekitaldietan PROMECO programara aurkeztutako proiektuek jaso ditzakete Foru Dekretu honetako laguntzak, baldin eta Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak gerora aztertuta irizten badio zuzen eta behin betiko ixteko hainbat doikuntza tekniko egin beharra dagoela.

Bosgarrena.- Eskualdeak Garatzeko Europar Funtsak (FEDER) kofinantzatzen du programa hau.

Seigarrena.- Foru Dekretu honen bidez araututako diru laguntzak aurrekontuetako ondorengo aplikazioen kontura ordainduko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren 2002ko Aurrekontuko 02.1.02.1.10.3.01.33.00.750.00.02. Xedapen erreferentzia: 105.14/000.01.3.02. Zenbatekoa: 961.619,37 euro. Azkenean emandako dirulaguntzak Foru Dekretu honetan baimenduak baino txikiagoak badira, soberan geratzen den saldoa zuzenean deuseztatuko da.

- Arabako Foru Aldundiaren 2002ko Aurrekontuko 02.3.03.1.10.3.01.33.00.750.00.02. Xeda erreferentzia: 105.8/000.02.3.03. Zenbatekoa: 300.506,05 euro. Azkenean emandako dirulaguntzak Foru Dekretu honetan baimenduak baino txikiagoak badira, soberan geratzen den saldoa zuzenean deuseztatuko da.

Zazpigarrena.- Foru Dekretu honetan xedatutako prozedura otsailaren 7ko 3/97 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoa) dirulaguntzei buruz xedatutakoaren mende egongo da.

Zortzigarrena.- Urtebete baino gutxiago duten enpresek aurkeztutako proiektuak, eta beraz 2. artikuluaaren arabera Promeco programako onuradun ez liratekeenak, enpresa unitate berriak (Pronue) sortzeko Laguntza Programara bilduko dira, besterik gabe.

**Arabako  
Foru Aldundia**

Diputatuen Kontseilua



**Diputación  
Foral de Álava**

Consejo de Diputados

AZKEN XEDAPENA.

Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.